

**TXIKITASUNAREN MAITALEA:
BITORIANO GANDIAGA¹**

Burutu ditugu, zelanbait esan, ekitaldi akademikoak eta orain omenezko berbak baino ez jakuz geratzen. Aurtengoan, poeta haundi bat omentzen dogu, eta Bilbo uri zaratatsutik Arantzazuko mendialde ixilera eskerronezko zubi bat eregi gura geunke, bertan bizi da-eta, nerabezarotik bizi be, aurtan omentzen dogun Bitoriano Gandiaga idazle meatarra.

Gauza bik bultzatu gaitue, besteak beste, Bitoriano Gandiaga omentzera: bateko, olerkigintzan urte luzetan zehar eginiko lan mardulak, eta, besteko, Euskalerriaz, euskeraz eta euskal kulturaz erakutsi izan dauan atxikimendu estuak.

Gu guztion eskerrona jasotzeko hementxe dogu gaur, gure artean, Bitoriano Gandiaga: Arantzazuko elorrien laguna; Euskalerrri xehearen nahi eta ezinen kantaria; menditik Madrilgo kale arteko mundu zaratatsura hurreratu jakun gizon dana ikusi gurakoa; denbora galtzearren bere barrua hustu eban arima mindua; Gabonen samurtasunez eta gehiegikeriaz ohartuarazo ginduzan koplaria; eta oraintsu, "eupadaka", zenbait egiaren gordina aldarrikatu dauana.

¹ Berbaldi hau *Mendebalde Kultur Elkarte*a-k Bitoriano Gandiagari egin eutsan omenaldian irakurria dozue. Omenaldia *Mendebaldeko Euskeraren Ekarria* (Bilbo, 1998/05/15-16) izeneko Jardunaldien amaieran burutu zan.

Poetaren obra nagusien nondik-norakoak ponentzia liburuan daukazuezan lez, gaurko honetarako, nire asmoa idazlearen izen-abizenen letretatik abiatuta, halako akrostiko moduko bat egitea zan, prosazko akrostiko xume bat, letrok iradokitzen eustiena iruzkinduaz. Baina, *Artetxeren* azken letrara heldurik hogeita lau pausutan eginiko bidea luzeegi begitandu jatan, batez be, kontutan harturik ekitaldien amaieran egongo ginala. Orduan zera erabagi neban: Bitoriano izenaren lehenengo hiru letrak hartu eta euren inguruan jardun. B-I-T letrak neukazan, beraz, eskuartean, *bit* bat; lehengai nimiñoa, baina bere txikerean informatika-legeen funts eta oinarri doguna. Txikitasunetik, unitate minimotik abiatuko gara, beraz, gero be txikitasunera heltzeko: **bitetik tantara**. Bata zein bestea, *bakarka hartu ezker*o txiki-txikiak —“Txakolinaren Ospakuntza”ko hiru gizonak legez—, baina euren kideakaz alkaturik, pentsatu ezinezko ahalmendun unitateak ditugu bitzuok. Goazen, bada, *bit* txiki hori arakatzera.

Bizkaiera. Beste euskalki eta aldaki guzti-guztiak legez, euskeraren osagai funtsezko eta ezinbesteko dogu B letrak iradokitzen deuskuna. Ganera, egunokaz, mendebaldeko euskera, bizkai-euskera izan dogu aztergai eta hausnarketa bide. Berbeta berberori edoski eban amarengandik gure aurtengo omenduak eta gurasoengandik harturikoa landuaz eta jasoaz, bizkaiera ederrean emon euskuzan bere lehenengo emoitza literarioak, *Elorri* liburu haundia be barne. Euskeraren batasunetik aurrera —ez ahaztu Arantzazu eta batua ia-ia soinkideak dirala— danona dan euskera batua izan dau Gandiagak literatur hizkuntza, euskaltzaletasunak eta garaiko beharrianek bultzatuta (Aztartzekoa litzateke mendebaldeko euskal idazleek batuari emon deutsoen eupada errimea, eta baita euskera batua-rekiko izan daben ardura eskergaitza be, batzutan euren berezko forma jatorrak baztertzerainokoa). Gandiagak be, orain denbora asko ez dala hausnarketa hauxe egiten eban berbaldi baten: “*Bizkaiera baztertu izanaren penarik badut. Euskara batze borretan bizkaiera gutxietsia izan ote den nago. Euskara*

idatziari begiratu zaio bakarrik, ez mintzatuari-eta. Bizkaiko euskara galtzen atera da, jendea aspertu ere egin dugulako batua mintzatura ere eramaten. Ni batuarekin bat nator. Baina!" (Hegats, 17/18, 1997, 107.orr.).

Hiru gizon bakarka liburuko azken atalean, erreka esanguratsu bat dago Artaso eta Arantzazuko parajeak batzen dituana: Artaso, jentil eta trikuharri lekua da; Arantzazu, barriz, kristautasun kabia. Euskalerra eta erlijio diferenteak ditugu, beraz, Arantzazuk eta Artasok sinbolizatzen dituenak. Artason gure ama kulturala dago, gure antzinaroa, gure sustraiak. Arantzazun, erlijio barria, gaurko Euskalerra. Gandiagak esan ohi dauanez: "*Artaso erori zenean, Arantzazu jaiki zen*". Baina, fraile kristau-euskaldunak, bi-biak lotu gura leukez, lurrean, iraganean, tinko sustraiturik, adarrak aidera, etorkizunera, ahalik eta goren eta zabalen hedatu ahal izateko. Artaso, baina, lotan dago, "*lo geldi maltsoan*", eta poetak ez dau itzartu gura, "*baina bai maitatu; / baina bai darion leben / arnasatik bartu*". Ikusi daigun paisaia:

*ARTASO
lotan geldi
geratu zen
aspaldi
aurreko mendian,
ta Arantzazu iratzarri
beste alderdian.*

*Ta, bien erdian,
lehengo erreka bera
bere betiko doan
betiko abian.*

Artaso bere esanahi anitzean lehengo euskera zaharra bebadateke, eta Arantzazu gaurko euskera batua, euskal kultura barriaren adierazlea. Baina ez dagoz alkarrengandik isolatuta, mendian jaiotzen dan iturria eta handik Arantzazura heltzen

dan erreka, bat bera diralako. Hau da, Gallaurtik, menditik behera urik ez datorrenean beheko uherka ezin bihurtu daiteke erreka; eta mendiko erreka itsasora helduko bada, Arantzazuko uherka behar dau derrigorrez. Erreka-bizkuntzak, bada, ur lasterren eta uherka zabaleko ur geldien beharra dau, bitzuak behar ditu, ibai emonkor bihurtuko bada.

Idazle. Bigarren letraren iradokizun nagusia idazletza geunke, abade eta irakasle izateaz ganera, poeta dogulako Gandiaga. Mutikotan piztu jakon Gandiagari idazle bokazioa eta ordurako baeroan buruan liburu bat idazteko gogoa: "*letra gutxikin eta tarte zuri askorekin*", poetak berak esaten deuskunez. Amets hori Arantzazuko arkaitz lakarraren ganean eta elorri xumearen inguruan gorpuztu zan:

*Ementxe dago arkaitza;
ementxe poema,
susmo maite bat oraindik,
soin gabeko ta eziña,
arkaitz zurtz onen ganean.*

Isilaldi luze baten ostean, Oteizak kinaturik, barriro ekingo deutso Gandiagak irakurleentzako olerkiak idazteari eta irudigilearen eta olerkariaren sentsibilitateen gurutzatzetik *Hiru gizon Bakarka* liburu arrakastatsua sortuko da. Niri arrakasta honek Joan Mari Torrealdairen *Euskal Idazleak Gaur* liburu potoloko "Las diez firmas contemporáneas preferidas" izeneko atala dakarst gogora. Eta argazki bat, hamar idazle horreetariko batena dana, Bitoriano Gandiagarena: pentsakor, kezkatu, burua eskue-tako ahurretan pausatua eta behera adi, lurrera. Gizon beraren hazpegiak agertzen dira, iaz, Foruko idazle aspertezinak plazaratu euskun *Euskal Kultura Gaur* liburuaren azalean, nahiz eta, oraingoan, Gandiaga lehenengo hamar horreen artean ez agertu. Eta badirudi liburu barriaren talaiatik gizonak, poetak honako hau esaten deuskula: "Hiru gizon bakarka *idazterakoan izan nituen kezkek bizirik diraute*" (*Egunkaria*, 1991/09/01).

Berbok, liburuaren bigarren argitalpena egin zan sasoian esan zituan Gandiagak. Berba esanguratsuak, euskaldunon zenbait lorpen ikusita, euforiazko zirimolean jausi ez gaitzean. Izan be, jakin daki poetak azaletik haratago joaten, gauzen benetako dimentsioa ikusten.

Aitatutako bolada arrakastatsu horretako beste gogorapen bat ekarri gura neuke lerrootara: 1977. urteko zemendian "Euskal Kantagintza Berriak" Durangon Gandiagari eskaini eutsan omenaldi beroa. Zuetariko bat baino gehiago egongo zinien han, seguru asko. Omenaldi zirraragarria, zinez, gogoan luzaro be luzaro irauten dabenetarikoa. Orduantxe emon eban argitara Gandiagak bere hirugarren liburua: *Uda batez Madrilen*. Harrezkero, pitin bat ahaztuta euki dogu poeta; hantxe, Arantzazun, edertasunez inguratuta, baina bere barruko kezka eta gatazken kontrako borrokaren erdian; beti be, Euskalerrriaren zoritxarreko patuak barru-barruraino hunkituta.

Tantoa. Ttanitta. Txikitasunaren maitale dogu Gandiaga, gauza apalen mireslea. Bere zenbait olerkitan badirudi infinitoa miniaturan emon gura deuskula, edertasunaren neurigabetasuna gauza txikien bitartez adierazirik, ulergarriagoa bailitzan. Bere lehenengo liburua be, tantatxu batez konparatzen dau, hango bizikizun, joran, pena eta poz guztiak urezko *bit* nimiño horretan sartuta:

*BEGIAN jaio zan.
Nire eskuak ez eutsan
ikutu sekulan.*

*Iruntz-tanto bat zan
okaran baltzean.*

Begian jaio zan.

Txikitasunarekiko joera hau, forman be nabarmentzen dana, Juan M^a Lekuonak oso era sugerikorrez definitzen deusku, *Elo-*

rri liburua “*marfilezko pieza txikiz eginiko erakusketa*” bat da-
la, esaten dauanean. Era horretako poesian euskal kopla zahar-
ren estetika ezeze, Japongo haikuen sotiltasuna eta sentsibili-
tatea be, nabariak dira:

*Pagadian bi ardi
bi iretargi-zati.*

.....
*Pagadian iturri
ardi ta iretargi.*

Haikuetan legez, poetak ikasi egiten dau izaditik, irakurri
egiten dau naturan: piñuetan, xirimirian, ira berdean, orbele-
tan, haizean, alanbreetan kateatuta dagozan ule-malutetan...
Naturako gauza eta izaki guztiek dinotsie zeozer Gandiagari,
eta bakarrik dagoanetan be haizean entzungo ditu gu guztion
ahotsak. Aspaldiko artikulu baten zera inoskun poetak (*Aran-
zazu*, 1966, XIV, 75.orr.): “... *zein aizek ez dizkio ekartzen ba-
ti, alde batetik edo bestetik datorrela, gizadiaren berriak? (...)
Jadanik aizeak gizadi osoaren, giza-arraza guzti ta bakottza-
ren giza-usai osoa dauka ta dena dago itzez eta zizpuruz eta
arnasaz eta arimaz ondua*”.

Gandiagarentzat, itoginak, errekak, euriak, haizeak, keak...
euren hizkuntza propioa daukie, euren ahotsa, beti bat eta beti
diferente. Horregaitik, zentzumen guzti-guztiak beti erne ditua-
la, gitxien uste dan lekuan ikusi-entzun-usaindu-ikutuko dau
poetak zeozer zirrara garri, eta bihurrikeria mentalik barik, arra-
zoiaren pentsuan egoteke, arimatik hara itzuliko deusku: bere
hutsean, bere gardenean. Izan be, gutariko nor ohartzen da *xi-
rimiri txanka meiak* garbitutako bideko harriaz?:

*Arre-argi zabaldua,
loratuten elorria.
Erlustu barri teillatu zaarrak,
garbi, bidean, arria.*

Bere lehenengo liburua iruntz-tanta bat bailitzan emon euskun Gandiagak eta tanta horren barruan elorri-lore mortxaka ugari. Loretxu bakotxa udabarri guztien irudia dateke eta baita gizakion gaztetasuna eta sasoi betearen irudia be:

*Orriztatu da poza,
goitu dau esia.
Epailleko xoramen,
zuri, elorria.*

Orbel kulunkariakaz bardin: orbel bakotxean, naturaren behera-beharra ikusten dogu, betiko udagoien betikoa, eta baita gizakiaren zahartzaroranzko bidea, zeruko udabarrian baino birloratuko ez dana:

*Lurra adore labanez,
bigun eta epel.
An-emenka zugaitzak
orbel t'orbel t'orbel.*

Eta zer dan gure gizona! Izadiaren erdian egon ezean, komentuko kuartoko leihoa izango dau behatoki pribilejiatu, edertasun guztien gordailu. Begitu non aurkitzen dauan zoriona (Aránzazu, 1966, XLV,100.orr.): *"Beti arritu nau prailleen gelako ikuskizunak: oge trakets bat, mai ximple bat, jantzi-kutxa men-gel bat, eskolarako ta semoitarako liburu batzuek, eta orma zu-riak. Eta orma gorrietan, argira, leto bat. Eta zer edertasuna! Zer zoramena angoa! Zer geiagoren bear-eza! Zer praillearen atsegiña! Zertarako ezer geiago? Ta ez nabil txantxetan. Ez naiz parrez ari. Zorionaren aurrean bai nago"*.

Ez dago lapurren bildurrik holako etxean! Zelan lapurtu leihoko ikuskizuna? Nork kendu aberastasun hori? Lehenago haikuak aitatu doguz eta euren sentsilitate berezia. Honako haiku zoragarri hau, japoniarra izan arren, komentuko gelatik bardin-bardin egin eitekean:

*Lapurrak,
leiboan itxi eban
iretargia.*

* * *

Hizkuntzatik idazletzara pasatu gara, gero okaranaren gane-ko tantatxu horretan eta bideko harri erlustu barrian gure begi harrituak pausatzeko. Badakigu Gandiaga idazlea, poesia liriko bako bako gehiago dana; baina labur zurrean, okaranaren gane-ko tantatxuaren inguruan ibili gura izan dogu, poetak gehien maite dauan barrutitik urten barik.

Guk, geure aldetik, iruntz-tanto gehiago eskatuko geunskioz Bitoriano Gandiagari, Euskal Poesigintzaren freskagarrri eta elikagarrri izan daitezcan. Baina, ez geunke komentariotxu hau amaitu gura beste idazle handi baten berba batzuk bertora ekarri barik, esanguratsuak dira-eta oso. Patxi Ezkiaga dozue hurrengo aitormena egiten dauan poeta: "*Gebien markatu nauenenak azpimarratu beharke banitu, nik lehenengoz izen bat aipatuko nuke, nire ustez agian euskal poetika inork baino gehiago markatu duena, eta baztertuta daukagun gizon bat: Bitoriano Gandiaga. Bere Elorri liburua neretzat benetan obra klabea da gaurko olerkigintza ulertzeko*" (*Enseiukarrean*, 6, 1991, 30. orr.).

Aurrera bada, Bitoriano! Emon beharra Dionisio Arrutiri; ez daitela geldi egon! Eta jarraitu apaltasunaren ederra kantatzen eta euskaldunon duintasuna aldarrikatzen, *abotsik behartu gabe*, gura badozu; baina, betiko moduan: fintasunean maisu eta arrazoietan sendo. Besterik ez, eskerrik asko!

Iñaki Sarriugarte Irigoien